### 1.3.1.12.Ibilgailuen trafikoarekin lotutako bideozaintza

| IDAZPURUA | OINARRIZKO INFORMAZIOA | INFORMAZIO OSAGARRIA |
|---|---|---|
| **Arduraduna** | Tratamenduaren arduradunaren nortasuna | Getxoko Udala<br>Foru kalea, 1, Getxo (48992 Bizkaia)<br>Telefonoa: 944660000<br>Helbide elektronikoa:<br>administrazioa.udaltzaingoa@getxo.eus<br>IFZ: P4805300C |
| | | DBO: datuak@getxo.eus |
| **Helburua** | Tratamenduaren helburuen deskribapena | • Honako hauek bermatzea: trafikoaren antolamendua, bide-segurtasuna, ibilgailuen aparkatzea eta herritarren segurtasunerako lankidetza. |
| | | Datuak administrazio-jarduerak iraun bitartean tratatuko dira, eta tratamendutik eratorritako balizko erantzukizun juridikoen eta Euskal Ondareari buruzko ekainaren 23ko 5/2022 Legearen arabera gordeko dira. |
| **Legitimazioa** | Tratamenduaren oinarri juridikoa | • DBEO: 6.1.c) Tratamendua beharrezkoa bada tratamenduaren arduradunari aplikagarria zaion lege-eginbeharra betetzeko.<br>  • 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituena.<br>  • 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa. |
| | | Baimena ematean oinarritzen diren tratamenduen kasuan, ez duzu datuak emateko beharrik, baina eman ezean, ezin izango dugu zerbitzua eman. |
| **Hartzaileak** | Lagapenen aurreikuspena | • Epaiketa organoak<br>• Bestelako herri administrazioak |
| | Hirugarren herrialdeei transferitzeko aurreikuspena | Aurreikusi gabea |

| | | |
|---|---|---|
| **Eskubideak** | Eskubideak baliatzea | Interesdunak eskubidea du bere datu pertsonalak atzi-tzeko, datu okerren zuzenketa eskatzeko, ezabaketa eskatzeko eta erabilera mugatzeko nahiz horren aurka egiteko. Horretarako, Udalaren helbidera idatzia bidali beharko du nortasuna egiaztatzen duen dokumentua erantsita, edo bestela, Udalaren egoitza elektronikoan horretarako propio dagoen prozedura elektronikoa hasi ahalko du. |
| | | Uste baduzu zeure datu pertsonalen tratamendua ez dela egokia izan, erreklamazioa aurkez dezakezu dagokion kontrol agintaritzan:<br>**Datuak Babesteko Euskal Agintaritza:**<br>Tomás de Zumarraga Dohatsuaren kalea, 71, 3. solairua<br>01008 Vitoria - Gasteiz<br>Telefonoa: + (34) 945 016 230 - Faxa: + (34) 945 016 231<br>E-maila: avpd@avpd.eus |
| **Jatorria** | Datuak ondokoek eman dituzte | • Interesdunak berak |
| **Datu pertsonalen kategoriak** | | • Identifikatzaileak: ibilgailuaren matrikula<br>• Irudia |
| **Ahal bada, segurtasunari buruzko neurri tekniko eta antolakuntzakoen deskribapen orokorra** | | Informazio-sistemak kategorizatzea eta segurtasun-neurriak ezartzea, Segurtasunerako Eskema Nazionala arautzen duen maiatzaren 3ko 311/2022 Errege Dekretuan xedatutakoari jarraikiz. |